

Orioko Zaintzaren **Diagnostikoa**

ORIO ZAINZA



AURKIBIDEA

HITZAURREA	3	Zaintza-beharrak dituzten pertsonak	16
Zaintza-lanak: Zertaz ari gara?	4	Elkarteak	18
Zaintzaren krisia	6	Zaintzaile afektiboak	19
Zaintza: Etika atzerakoiak baldintzatuta...	8	Etkez etxeko laguntza-zerbitzuko langileak	20
Zaintza-ekosistemaren beharra	10	Eguneko zentroko langileak	22
Orioko egoeraren zertzelada batzuk	12	Amak	24
Oriotarren kezka eta aldarrikapenak	14	Komunitatea	25
Zaintza-zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresak	15	Aurrera begirako erronkak	27

HITZAURREA

01

Esku artean duzuen txostena Orioko Udalak Saregile Etxearen eta Gizarte Zerbitzuen lidergotzarekin eratutako Zaintzen Diagnostiko kolektibo eta parte-hartzailea da. **Dokumentuak planteatzen dituen ekarpenen artean badira agerian utzi nahi ditugun hiru gako:** batetik, Orioko Udalak lankidetzaz bikoitz bati esker egindako urtebeteko prozesua dugula, Emagin Kooperatibari eta Matia Fundazioari esker egindako elkarlanaren fruituak jasotzen baitira bertan. Bestetik, zaintza-sistema sostengatzen duten zenbait eragile publiko-pribatu eta komunitarioren eskuzabaltasunari esker eraiki ahal izan dugu dokumentua. Une ezberdinetan, herritarrei zabalduko galdetegi baten bidez, elkarriketa

sakonen bidez, taldekako eztabaida ezberdinetan edota tailerretan eraikitako prozesua izan dira eskuzabaltasun horren iturri.

Azkenik, zaintza-krisiari era integral batean erantzuteko, **begirada zein askotariko errealitateen arteko uztartze estrategiko bati heldu nahi izan dion ariketa herritarra dugu.** Hots, Saregiletik egiten den ekarpen feminista eta Gizarte Zerbitzuek herritarrak erdigunean jarrita eskaintzen duten arreta gurutzatu nahi izan ditugu. Etorkizuneko ekintza praktikoa zaintzaren baitako hausnarketa-prozesu konplexu eta mamitsu horietatik abiatzea espero dugu. Muinean, Orioko herriak aurrerapauso garrantzitsua eman du zaintza eraldatzeko bidean.

Zaintzak askotariko ikuspegiak zeharkatzen ditu, eta badakigu gai konplexu baten aurrean gaudela.

Lana, denbora eta esfortzua uztartzen dira, besteen bizitzek bizitza izaten jarraitu dezaten.

Prozesu zehatzak dira, zuzenak, eta era berean, ikusezinak, zeharkakoak. Subjektibitate handiko lanak dira, emozio, sentipen, afektu, afektu eza zein maitasun edo maitasun ezarekin lotzen direnak. Ez dira ekintza bakarra; hots, askotarikoak dira. Uztartu daitezke eta horrek zama ere areagotzea ekar dezake. Etengabeko ardura eta disonibilitatea eskatzen dute askotan, zerbaiti arretaz egotea, begirale gisa egotea. Ondorioz, esan dezakegu ez dela lan zehatz bat soilik, lan bat egiteko denbora potentziala ere barnean biltzen du-eta.

Bizitza mantentzen dute eta, gainera, ongizatea eskaintzen digute. Horiek horrela, zaintzek ongizaterako baldintza materialak ziurtatzen dituzte eta gorputz zein emozioen arreta bermatzen dute. Perez de Orozkoren (2014) definizio honekin bat egiten dugu: **“Pertsonen ongizate fisiko eta emozionala egunero eta belaunaldiz belaunaldi birsortzen duten jarduerak dira zaintza-lanak”**. Gure existentziaren oinarri dira, eta zaurgarritasunari aurre egiteko era bakarra elkar zaintzea da. Zaintza-lanek harremanean jartzen gaituzte guztiok, eta jendartea eraikitzen da; hots, komunitatea. Are gehiago, planeta honetako pertsona eta izaki bizidun gehienek aurrera egitea ahalbidetuko duten baldintza politiko, sozial, material eta emozionalak eskaintzeko gure gaitasun indibidual eta kolektiboa direla uste dugu (The Care Collective, 2021).

Hala ere, ezin ditugu zaintzak esentzializatu eta erromantizatu. Bi alde dituzte: batak eraldaketa zein askatasunarekin lotu gaitzake; besteak, zapalkuntza eta diskriminazioarekin. **Gatazka-eremu izan daitezke, baldintza justuetan egiten ez badira, beharrak errespetatzen edo kontuan hartzen ez badira.** Abusu asko gertatzen dira, eta tranpa horiek guztiak azaleratzea ezinbestekoa da zaintza-lanak demokratizazio bidean jartzeko.

Zaurgarritasunari
aurre egiteko
era bakarra
elkar zaintzea da



Gaur egun zaintza-lanak antolatzeke dugun moduak ez ditu gizartean dauden beharrak asetzen.

Datozen urteetan egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute datuek, zaintzak beste era batera antolatzen ez baditugu, behintzat.

Faktore hauek eragin dute zaintzen antolaketan: aldaketa soziodemografikoak, mendekotasun indizeen gorakadak, emakumeen lan merkaturatzea areagotzeak eta bizitzako espektatiben aldaketak, politika neoliberalen garapenak, sistema publikoaren higadurak eta askotariko familia-ereduen garapenak. Ondorioz, zaintzaren krisiaz mintzo gara.

Zaintzaren kate globala

Lehen katebegia iparraldeko emakumeek osatzen dute, ez dutelako nahi edo ezin dutelako inguruko zaintza-lanez arduratu. Horiek lan-merkatura ateratzen direnean, beste emakume batzuek uzten dituzte zaintza-lanak. Horra hor bigarren katebegia, hegoaldeko migratu duen emakumea. Horiek, era berean, bere jatorrizko herrialdean bere inguruko beste emakumeengan laga dituzte ordurarte beren kargu zeuden lanak. Azken horiek izango lirateke hirugarren katebegia.

Zaintza-lanen krisiak areagotu egin ditu Europako zeinbait herrialdeetan ditugun premiak, eta horrek bultzatuta, hegoalde globaleko herrialdeetako emakumeen eskari handia dago. **Emakume etorkin eta arrazializatuak dira nagusi zaintza-lanetan:** administrazio publikoak bultzatutako zerbitzuetan (geroz eta gehiago), merkatuaren logikan mugitzen diren enpresetan (irabazi asmoko enpresetan), etxeko langileen kasuan. Horregatik, zaintza-lanen antolaketaz egiten ditugun hausnarketek ikuspegi transnazionalak behar dituzte.

Tokiko antolaketari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu **ez dugula berariaz zaintzaz arduratzen den sistemarik**, konektatu gabeko irla ugari daudela, bakoitzak dituela lan-tresna eta baliabide ezberdinak eta pertsonen zaintzarako herritarrok **leihatila askotatik pasa beharrean gaudela**. Erabat burokratizatutako prozesu motelak pasa behar

dituzte zaintza-premiak dituztenek, eta zerbitzu eskasak dituzte eskura. **Gaur egun, zaintza ez da eskubide unibertsala, eta horra iristeko prozesua sustatu nahi dugu Oriotik.**



Zaintza-erregimena bidegabea da eta askotariko fenomenoak elkar lotzen dira:

Lan-prekarietatea, lan-merkatuaren segmentazioa, pobrezia, pobrezia feminizazioa, jardun bikoitzak, denbora-pobrezia, bizi-proiektuen alboratzea, bazterketa soziala eta indarkeria matxista.



HIPERFEMINIZAZIOA

- + Emakumeak dira nagusi zaintza-lan profesional eta ez profesionaletan. Gizonen hutsunea nabaria da bai batean zein bestean.
- + Horrek emakumeak desjabetzen ditu, ekonomikoki, politikoki eta sozialki.

LEGE FAMILISTA ETA ARRAZISTAK

- + 4/2000 Atzerritartasun lege organikoa
- + 1620/2011 Errege Dekretua, etxeko zerbitzuaren izaera bereziari buruzkoa
- + 27/2011 legea, Gizarte Segurantzako erregimenari buruzkoa
- + 39/2006 Mendekotasun legea

FAMILIARIZAZIOA

- + Familiak dira zaintza-lan emaile nagusiak, eta ardura handiena hartzen dutenak. Gainera, familiako zaintzak dira desio ditugunak eta lehenesten ditugunak, gure zaintza-iruditeria medio. Familien barruan, emakumeak dira zaintzaile nagusiak.

DEFAMILIARIZAZIO-ESTRATEGIAK

- + Berpribatizatuak: Etxeko langileen kontratazioa da nagusia.
- + Merkantilizatuak: Irabazi asmoa duten enpresak gailentzen dira.
- + Informalak: Askotan ez daude lege-arauen menpe (etxeko langile internoak, adibidez).

Sakoneko krisi garaikide honek agerian utzi du egungo zaintza-eredua eraldatzeko beharra.

Horretarako, azken urteetan zaintzen inguruko ikuspegi zabalago batek aurrera egin duela antzeman da: zaintzaren planteamendu komunitarioa. Ikuspegi horrek gero eta indar handiagoa hartu izan du. **Planteamendu hauetan, laguntza beharrean dauden pertsonen premiei erantzungo dien** gizarte-babeseko sistema arduratsu baten eskaera egiten da. Era berean arreta berezia jarritz hurbileko inguruneetan eta elkarlaneko zein elkarri laguntzeko komunitate-mugimenduei indar edo protagonismo handia emanez (Solís, Buján eta Paredes Chauca, 2018).

Parte-hartzetik zaintzetan oinarritutako herri bat garatzeko planteamendua da mahai gainean dagoena, autonomia pertsonala mugatua duten eta laguntza beharrean dauden pertsonen inplikazioan fokua jartzea proposatzen duena. Ildo beretik, jasotzen duten arreta-mota eta egungo iraupen luzeko zainketen eredua berriz pentsatu beharko dira, bai ekipamenduei dagokienez, baita egungo zerbitzuen eta zerbitzu berriak eraikitzeari eta programen ezartzeari dagokionez ere.


Azken finean, garrantzitsua baita Orioko pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituen zaintzaren egituratzea sustatuko duen ekosistema baten alde lan egitea, horrek dakarren erantzunkidetasunari erreparatuz, eta etxeke, laneko, **genero sistemako eta gizarteko eguneroko** bizitzaren berrantolaketari buruz hausnartuz. Orioko zaintza-ekosistema herri-proiektua baita finean, zaintzea eta zaindua izatea balio sozial, ikusgarri, miresgarri eta etikoa izango den herri zaintzaile baten proiektu ekosistemikoa.



DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK:

1 Orion 205 herritar daude mendekotasun-egoeran. Horietatik, gehiengoak arreta etxean jasotzen du (EELZ, LPPE edo FIZPE bidez): % 69.

2 Herriko ekipamenduei buruzko datu batzuk:




3 Zerbitzu edo laguntza jasotzen dutenetatik, gehiengoak arreta etxean jasotzen du (EELZ, LPPE edo FIZPE bidez): % 69.

Arreta jasotzen dutenen kopuruak agerian uzten du pertsonen lehenengo nahia etxean edo etxean bezala mantentzea dela.

4 Arreta etxean jasotzen duten herritarren % 65 lehen eta bigarren mendekotasun-graduetan daude.

- 5 Aldiz, etxetik kanpoko zerbitzuetan arreta jasotzen duten herritarren gehiengoa bigarren eta hirugarren mendekotasun-gradueta kokatzen da (% 82a).

Hori horrela, pertsonen lehenengo desioa etxean jarraitzea den arren, mendekotasuna eta zaintza-beharrak aurrera egin ahala, behar horiei erantzuna emateko, etxetik kanpoko arreta-zerbitzuetara jotzen da.



- 6 Onuradunen gehiengoa (% 40,4) beren ezkontidearen/bikotearen zaintzaile nagusia da. Proporzio txikiagoan guraso (% 26,3) edo seme-alaba (% 22,2) baten zaintza-beharrez arduratzen diren senideak daude. Familiako nukleo hurbiletik harago daudenen artean kokatzen da gainontzeko % 11,1. Honek guztiak adierazten du FIZPE onuradunen artean, senideen zaintza familia hurbilean kudeatzen dela Orion (bikotekide, guraso eta seme-alaben artean).

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua
- Eguneko zentroa
- Egoitza
- Familia inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoa
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

Ondorengo lerroetan Orioko lansaio bakoitzean landutako edukiak, gakoak eta ekarpenak jaso eta laburbildu ditugu.

10 lansaio eta elkarrizketa egin ditugu guztira. Lansaio bakarra gelditu da bertan behera, eta gehienetan 8 eta 25 parte-hartzaile artean egon dira. **Guztietan emakumeak izan dira nagusi, eta horietako batzuetan guztiak izan dira emakumeak.** Aipagarriak dira langileekin egin ditugunak, eta gurasoen taldea (soilik amak etorri ziren).

Hau guztia koordinatzeko eta aztertzeko talde motore bat egon da, Orioko Udaleko alkateak, Gizarte Zerbitzuak, Saregile Orioko Emakumeon* Etxeak, Matia Fundazioak eta Emagin Elkartek osatuta.



ZAINZA-ZERBITZUAK kudeatzen dituzten enpresak

08

Jarraian daude taldez talde ateratako ondorio nagusiak.

- Orion lanean dauden **zerbitzu hornitzaile gehienak gutxienez 10 urteko ibilbidea dute**. Herrian egonkortuta daude eta zaintza-lanen sektorean 10 eta 20 urteren bueltan daramatzate lanean.
- Haien artean, **harreman gutxi dago, ez dute elkar ezagutzen**, baina lankidetzarako prestutasuna dute, nahiz eta lehiakortasuna ere badagoen.
- Harreman gutxi dute komunitateko eragileekin, baita osasun-arloarekin ere. Enpresek ez ezik, zerbitzuek ere ez dute komunitatearekin harreman handirik, zerbitzuen hermetikotasunaren adierazle. **Horrek erronka**

bat mahaigaineratzen du: zerbitzu irekiak eta komunitatearekin elkarlotzen direnak sortzea.

- Mendekotasun-egoera jakin batzuei erantzuteko zerbitzu eta laguntza eskasak dituzte. Nagusiki, agerian geratzen da **gaur egun jendarteak dituen zaintza-behar nabarmenatarako ez daudela zerbitzu egokiak**, ez dira mendekotasun-egoera ezberdinetara egokitzen, ezta pertsona guztien beharretara ere.
- Artatzeko ikuspegiak orotarikoak dira, eta esparru komun bat sortzeko premia dago.

- **Zaintza-beharrak izatera pasatzea asimilazio-prozesu luze bat da;** bai pertsonarentzat bai bere inguru hurbilarentzat. Gizartea ere ez dago prest horretarako. Zahartzaroa ez da lantzen eta administrazio publikoak ez du akonpainamendua eskaintzen.
- **Herriko zein inguru sozialeko oztopoez ez gara kontziente zailtasunak, zaintza-beharrak edo desgaitasunen bat dugun arte.** Horregatik da garrantzitsua komunitatean zahartzaroaren ondorioez zein herriko oztopoez hausnartzea.



Besteen beharra duzunean mentalki prestatu behar zera. Baina hori nola gestionatzen duzu? Hori mentalki preparatu behar dezue eta gizarteari ez zaigu hori erakusten. Erakusten zaigu nola jokatu normaltasunean, baina pertsona bat normaltasunetik atetzen denean hor ez dakigu nola jokatu, ez zaigu erakusten.



Nik Orion gauza asko ezin ditut egin koska handiak daudelako. Agian, herriko jendea ez da konturatzen. Ni nere egoerarengatik txikitatik ohartu eta moldatu egin naiz, baina beste batzuk moldatu behar dira ere. Pertsonak hori asimilatu behar dute eta bere inguruak ere bai. Lan hori komunitatean egin behar da, familian, ez indibidualean.



Ni al naiz bakarra pentsamendu hauek dituenen? Adibidez: hondartzara joateko herritik abiatuta, nola joan naiteke? Nola ukitu ura gurpildun aulkiarekin? Dendetan sartzeko koxkak ezin dira kendu? Ez nazazu dendako atean atenditu, ezin al naiz sartu besteak bezela?



- Zaintza-beharrak azaltzen direnean, **pertsonaren eta bere inguru hurbilaren isolamendua ekar dezake bizi-erritmo aldaketak**. Komunitatean bizitzeko zailtasunei aurre egiteko mekanismoak behar dira.



Sozialki ez zoaz abiadura berdinean eta hori asko nabaritzen da. Zure limitazioen kontzientzia hartzera eramaten zaitu, baina baita ere gizartearen limitazio eta oztopoez konturatzan hasten zara. Gainera, badirudi zailtasunak lana ematen diela besteei, zaila egiten zaiela ulertzea.



- **Kezka handia dago zaintza-beharren inguruan sortzen diren egoerak zaintzaileengan duen eraginaz**. Profesionalen kasuan, lan baldintzetan hobekuntzak egon behar dutela jabetzen dira. Zaintzaileek zaintzearen beharraz ohartzen dute.



Zaintzailea zaintzeko espazioak izan behar ditugu familiarik kanpo. Ama zaintzen ari naiz lanean ariko banintz bezala. Arnasa hartu ahal izateko espazioak nahi ditut, eta nire zaintzaile roletik kanpo neure buruarekin berriro konektatzeko tokiak izan.



- **Etxean edo etxean bezala zainduak izan nahi dugu**. Hala ere, belaunaldien artean ezberdintasunak daude, gazteagoek zerbitzuengan konfiantza gehiago erakusten dute.
- **Administrazio publikoak eskainitako baliabideak ez dira aski ezagutzen**. Gainera, gizarte zerbitzuen lanak hutsuneak dituela, ez dela pertsonalizatua eta jarraipenerako zailtasunak dituela uste dute erabiltzaileek eta, askotan, tramite hutsean gelditzen dela salatzen dute. Ezagutza hedatu eta eskuragarritasuna bermatu behar da.



Laguntza tekniko ugari daude, baina horiek zuk eskatzen ez badituzu ez dizute ezer esaten, ez dituzu ezagutzen. Eskatuta ere, horiek eskuratzeko itxaron zerrenda luze batean kokatzen zaituzte eta bertan gelditzen zara laguntza teknikoa duen beste pertsona bat hiltzen den arte. Hutsune handi bat da hori.



- **Mendekotasuna aurrera joan ahala, pertsonak elkarteetatik eta komunitatetik desagertu egiten dira.** Honek suposatzen du, zaintzak gaur egun bizi duen egoeran oinarrituta, mendekotasunaren eta bizitza sozial edo komunitarioaren arteko harremana alderantzizkoa dela: zenbat eta mendekotasun handiagoa, orduan eta parte-hartze gutxiago komunitatean.
- **Beharrezkoa da, zaintzaren erronkari aurre egiteko, eragile guztiek begirada eta egiteko modu kohesionatu bat partekatzea.** Hori horrela, elkartegintzaren eremutik, elkarte desberdinen arteko saretzea proposatu da.
- Elkarreetatik aurrera eramaten diren zenbait ekintza (formakuntzan, saretzean oinarritutakoak) **baliagarriak dira prebentzio gisa mendekotasunari eta bakardadeari aurre egiteko.**



Badakigu hor dagoela baina ez dugu hitz egiten. Ez dakigu nola interbenitu.



Puntu batetik aurrera, desagertu egiten zara.



ZAINTZAILE AFEKTIBOAK

11

- **Talde honetako pertsonak maiz izaten dute erruduntasun sentimendua.** Sentimendu hau nabarmenagoa izan da zaintzaile nagusiak ez direnen artean.
- Zaintza-egoerekin lotutako kudeaketak tramitatzeko prozesu asko ezezagunak dira, bai gizarte-zerbitzuentzat, bai horien beharra duen pertsonarentzat edo haren ingurunearentzat. Horrez gain, **laguntzak muturreko egoeran daudenean eskatzen dira, eta horrek asko zailtzen du kudeaketa,** informazio guztia biltzeko behar den denboragatik.
- Laguntzak edo baliabideak eskatzeko egin behar dituzten tramite askok **burokrazia handia eta denbora galtzea dakarte, ez da prozesu arina.** Prozesu edo eskaera batzuk martxan jartzeko ate asko jo behar dira, eta jarraitu beharreko ibilbidea ez dago beti argi; askotan, gainera, prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek ez dute horren berri.
- Zaintza ere, kasu batzuetan, gogobetetzen duen zerbait bezala bizi da. Gogobetetze hori, maiz, **zaintzen duen pertsonarekiko loturarekin eta zaintzaren aurretiazko historiarekin ere lotuta dago,** adibidez, pertsona zainduak zaintzailea aurretik zaindu duenean. Familia-lotura batzuk indartu egiten dira zaintzekin. Zaintzak eman eta kendu egiten duela jakitun dira.



- **Zaintzaile profesionalak oro har emakumeak dira**, eta lanean ez ezik, zaintza-ardurak dituzte inguruan.
- Zaintza-lan profesionalak, familian edota komunitatean eskaintzen direnak bezala, balio sozial gutxikoak direla, eta aitortza sozial eta ekonomikorik ez dutela nabarmendu dute. **Familiak eta erabiltzaileak dira lana gehien baloratzen dutenak.**
- **Langileek zein ingurukoek lana bokazioarekin lotzen dute.** Batetik, irakurri daiteke lana gustukoa dutela eta ekarpen handia egiten diela. Bestetik, ordea, ematen du lan hori ezin duela edozeinek egin, eta erabat feminizatzeke eta perfil zehatzekin lotzeko arriskua ere badago.
- Gaur egun gailentzen den arreta-eredua negozioari lotua dagoela uste dute langileek. **Ez ditu pertsonak erdigunean jartzen, ez haien behar eta desirak**, zerbitzua kudeatzen duen enpresaren irabaziak baizik.

Gaur egun erabiltzaileei ez zaie arreta pertsonalizatu integrala eskaintzen:

- **ESPAZIOA:** Orioko espazioa zaharkitua eta eredu zehatz bati kateatuta gelditu da. Ez du intimitatea bermatzen, ez du askotariko beharretara egokitutako ekintzak egiteko aukera ematen, eta ez ditu beharrezkoak diren baliabideak.

- **RATIOAK:** Ez dago langile nahikorik 25 pertsona artatzeko. Ratioen barruan arreta zuzenean ez dauden langileak ere sartzen dituzte, baina egunerokoan ez daude erabiltzaileekin. Arreta pertsonalizatzeko denbora behar da. Gainera, eguneko zentroa ez da soilik eguneroko aktibitateak bermatzeko zerbitzua, autonomia sustatzeko espazioa ere bada, eta hori ezin da egin hain langile gutxirekin.
 - **PROFILA:** Eguneko zentzoko pertsonen adina eta mendekotasun-maila asko handitu da. Ezin dira autonomoagoak diren pertsonen beharrak asetu, egoitza batean egon beharko luketen pertsonak artatu behar direnean.
- Lan-antolaketa eta planifikazioa aldatu dira, eta langileak ez daude konforme. **Lan-gatazka betean daude eguneko zentroan.**
 - Norabide guztietako koordinazio eza salatzen dute. Aldundiak ez du jarraipenik egiten, diziplinarteko bilerak falta dira, langileen artean ez dago koordinaziorik eta Udalarekin berriki aktibatu dute harremana.



- Egun, EULEN enpresaren bidez ematen da eguneko zentroko langileen zerbitzua Orion. **6 langile aritzen dira zerbitzu hori ematen, guztiak emakumezkoak.**
- Zaintza-lan profesionalak **balio sozial gutxi dutela uste dute**, eta ondorioz, aitortza sozial eta ekonomiko eskaseko lana dela iruditzen zaie. Horren adibide da hainbat erabiltzaile zein familiaren aldetik tratatu txar eta indarkeriazkoak sufritu izana.
- Enpresa kontratatzaileak, kasu honetan, EULENek, ez du langileak tratatu txarretatik eta indarkeria egoeretatik babesteko protokolorik; soilik arrisku-maila handia dagoenean esku-hartzen du.

Bi zerbitzu mota eskaintzen dira Orioko EELZn:

- 1 **PERTSONALA:** Erabiltzailearen garbitasuna mantentzeko lanak, hau da, dutxa, ohea, bere arropa...
- 2 **MISTOA:** Etxearen garbitasuna eta erabiltzailearen garbitasuna. Hala eta guztiz ere, beren funtzioetatik kanpoko lanak egiteko eskatzen zaie eta egiten dituzte maiz.

- **Indar fisiko eta mental handia eskatzen duen lana da.** Zentzu horretan, faltan bilatzen dute laguntza edo aholkularitza psikologikoa jasotzea.
 - Jakitun dira **eguneko zentroko langileen zerbitzuak ez dituela jendearen zaintza beharrak asetzen.** Sarritan erabiltzaileen agenda ez da errespetatzen, eta ez da ebaluazio jarraitua egiten, egokitzen joateko.
 - Zerbitzu hobea eskaini ahal izateko prestakuntza jasotzea eskatzen dute. Formakuntza-saioak jaiegunetan izan ohi dira, eta ondorioz, ezin dute parte hartu.
 - Denborarik gabe ibiltzen direla adierazten dute. **Korrika eta presaka aritzen dira zerbitzu bakoitzean zehazturiko lanak aurreikusitako denboran betetzeko.** Heltzen ez direla sentitzen dute eta bi arrazoi aipatzen dituzte:
- 1 Zerbitzuaren izaera bera.
- 2 Bata bestearen jarraian ditzutela zerbitzuak eta zerbitzu batetik bestera mugitzeko denbora tarte txikia ematen zaiela (10/15 minutu).
- **Hamar urte lan-hitzarmena berritu gabe egon ostean, 2024an onartu da.** Tokiko irizpideen arabera definitu dute hitzarmen berria (aurretik estatu mailakoa zuten). Modu parte-hartzailean adostu dute, EULENen, sindikatuaren, Orioko Udalaren eta langileen artean. Hobekuntzak ekarri dituen arren, oraindik badago zer hobetu: langileen osasuna, ongizatea eta interesak aintzat hartzea; langileak indarkeria-egoeretatik babestuko dituen protokoloak sortzea; erabiltzaileen gaineko informazio zehatza ezagutzea haien etxeetan lanean hasi aurretik; zerbitzu berrien hasieran koordinatzaile, langile eta erabiltzaileen aurkezpen bateratua egiten dela bermatzea; formakuntza-ikastaroak lan-ordutegiaren barruan jasotzea.
 - Etxeak ez daude zaintza-beharrei aurre egiteko egokituta. **Azpiegitura egokia falta da.**

- **Gurasotasuna emakume-gorputzekin lotzen jarraitzen den praktika, emozio eta esanahi multzoa da oraindik.** Naturalizazio prozesu hori tarteko, ez da harritzekoa parte hartu dutenak emakumeak izatea.
- **Kultura-aldaketa beharrezkoa da:** laguntza eskatzea normalizatu behar da, gizonen inplikazioa handitzeko estrategiak garatu behar dira, zaintza-eredu berriak ezagutu behar dira, eta kontziliazioaren kultura sustatu behar da.
- **Baliabideak eta espazioak hedatu behar dira:** espazio estaliak, eta larrialdietarako sareak sortu behar dira.
- **Babes emozional eta psikologikoa behar dute amek:** sare publiko-komunitarioak aktibatu behar dira, akonpainamendurako espazioak sortu behar dira. Horrez gain, ahalduntzerako eta trebakuntzarako guneak behar dira.
- Saregileko amen sareari jarraipena eman behar zaio amak zaintzeko, egunerokotasunari aurre egiteko, premiei erantzuteko, denbora trukatzeko.



KOMUNITATEA

15

- Zaintza komunitarioaz eta begirada zainzaileaz herri mailan hitz egiten eta hausnartzen denean, **komunitateko kolektibo batzuk ez dira interpelatuta sentitzen.**



Begirada zainzailea emakumeontzat bakarrik dela dirudi. Guztiok izan gara eta izango gara zainduak (emakume, gizon, zahar, gazte edo ume), eta beraz, guztiok izan behar gara zainzaile: bai emakume eta bai gizon.



Gizonezkoak nola inplikatu? Begira talde honetan: hemen denok gara emakumeak, beti bezala.



Zaintza kontzeptua ireki behar dugu: gazteak eta haurrak ere, dena lotuta dago!.



- **Orietarrek Orion zahartu nahi dute eta eskubide hori aldarrikatzen dute.** Gaur egun, zaintza-beharren intentsitateak eta pertsonaren errekurtso sozial edo/eta ekonomikoek baldintzatzen dute eskubide hau bermatu ahal izatea.



Zahartzaroa herrian bizi nahi dugu, hemen bertan, gure seme-alabekin, gure lagunekin, betiko jendearekin.



- Herrian bertan zahartzea ez da nahikoa: **bermatu behar da zaintza-beharrak dituzten pertsonen duintasuna eta komunitatean bizitza egiten jarraitzea.** Momentu honetan, oriotarrak kezkatuta daude azken puntu honen inguruan.



Nere kezka da adinean aurrera goazela. Momentuz ondo konpontzen gara baina aurrera begira zer? Hori konpontzeko zerbait behar dugu. Nik urte askotan arreta-zentro batean egin dut lan. Boluntarioak behar ziren paseatzeko, ateratzeko, Oriora edo Zarautzera joateko. Borondate oneko jendea behar da komunitatean bizitza egiten jarraitzeko, eta zerbitzuak deskargatzeko



- Herrian bertan duintasunez bizi eta zaindua izateko eskubide horretan, Udalak eta zerbitzu desberdinek badute zeresana. Hala ere, zaintza-ekosistema publiko-pribatu komunitarioaz hitz egiten ari bagara, **komunitatearen begiradak eta aktibazioak du pisu gehien.**

Hori guztia artikulatzeko, beharrezkoa da gaur egungo balio sozial eta kultural indibidualistak gainditzea.



Nik jarri dut kezka bezala berekoitasuna. Arazoa ikusten ez duen jendea, edo beharra ez duen jendea ez da hainbeste inplikatzeko horrelako gaietan. Herri mailan inplikazio gutxi edo eskasa ikusten dut herriarekiko. Gazteen artean ez dago honen inguruko inplikaziorik.



- Zaintza komunitarioaz hitz egiten dugunean ez gara zaintza-beharrak dituzten pertsonen soilik ari, **baizik eta egoera horren inguruan inplikaturik dauden pertsona guztiez.** Horien artean zainzailea (afektiboa, profesionala) zaindu behar da eta egiten duen lanaren balorazioa, errekonozimendua eta baldintzen duintasuna bermatu.



Zaintzaile profesionalen aitortza eta errekonozimendua. Lan bat da azken finean. Lan baldintza duinak izan behar dituzte.



AURRERA begirako erronkak

16

Diagnosi honetan jasotako informaziotik abiatuta, lau erronka nagusi identifikatu ditugu, eta alor horietan lanean jarraitzeko konpromisoa hartu dute eragileek:

- **BALIABIDEEN MAPA**

Herrian dauden baliabide publiko, pribatu eta komunitarioen mapaketa egingo da, eta haien arteko harremanak zein diren identifikatuko da. Gaur egun herrian dauden zaintzara zuzendutako baliabideak eta bitarteko potentzialak identifikatzeko tresna izango da.

- **ZAINTZA-GUNEAK**

Zaintzaile profesional, afektibo, guraso, adineko pertsona zein komunitateko elkarte eta norbanakoekin lanerako guneak ireki dira udazkenean, eta segida izango dute 2025ean. Horietan, Orion aurrera begira egin nahi diren ekintzak jasoko dira, eta horiek gauzatzeko baliabideak eskainiko dira.

- **SENTSIBILIZAZIOA ETA TREBAKUNTZA**

Gaur egungo egoeraren gaineko kontzientzia areagotzeko eta zaintza-eredua aldatzeko, ezinbestean, zaintza-eredu berrien gaineko trebakuntza jaso behar da. Horregatik, zaintza-lanekin lotutako askotariko gaiak landuko dira, berriazko programazioaren bidez.

- **HERRI AKORDIOA**

Orain arte adierazitako herri mailako arduraren eta konpromiso zehatzetan oinarritu behar da. Akordio honen bidez, zaintzaren ekosisteman dauden eragile publiko, pribatu zein komunitarioak bilduko ditugu, bide-orri zehatz baten garapenean lan egiteko.



saregile*
GRUPO EMPRESARIAL ETXEA

matia

